

SOLUZIOAK MAIATZA


Hona hemen maiatzean Euskal Herriko herri desberdinetako umeez beraien toki aldizkarietako jolasen txokoa aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.

Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).



Bakoitzari berea

Ezagutzen al dituzu eskuko hatzen izenak? Hala bada, lotu hatz bakoitzari bere izena. Batzuek izen bat baino gehiago dute.



KONTA!




Zertarako erabiltzen dituzu eskuko hatzak? Gitarra jotzeko? Muki lehorrak ateratzeko? Bada, batzuek ipuintxoak asmatzeko ere baliatzen dituzte. Hatz bakoitzean pertsonaia bana marraztu, eta istorioak kontatzen hasten dira. Hemen alboan esku baten ertza dago. Hiru pertsonaia ditu: Txirrita bertsolaria, Altzoko Handia eta Margarita Nafarroako azken-aurreko erregina. Bostekoa osatzeko beste bi pertsonaia falta dira. Egin itzazu zure gustukoak.

Pertsonaiez gain, marraztu eskumuturreko bat, eraztun polit bat eta ia esku osoa beteko duen tatuaje bat.

Sudokua eskura


Bete itzazu sudoku honen hutsuneak ESKURA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (E, S, K, U, R eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

A	U	E	R	S	K
S	R	K	U	A	E
K	E	S	A	U	R
R	A	U	K	E	S
U	S	R	E	K	A
E	K	A	S	R	U



Pareak

Hatz-aztarnak gizaki bakoi-tzaren ezaugarri behinenak omen dira: nork bereak ditu eta ez omen daude bi berdin. Baina hemen hatz-aztarna guztiak bi aldiz ageri dira, bat izan ezik. Zein da?




HAMAHIRU!


Hauak bai zortea!
Seina beso, aizue! Eta den-dena eskura, ezta? Aurki itzazu bi Shiva hauen artean dauden 13 aldeak.

Handienetik txikienera

Ordenatu eskuok handienetik txikienera.
Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienerari 9.



Zomorroak Labirintoan



Hiru xomorrotxo hauetatik bat labirintotik aterako da, beste bat etxera iritsiko da eta hirugarrena harrapatuta geldituko da labirintoan. Ea identifikatzen dituzun.